



IX. Pello Mari Otaño bertso-paper lehiaketa

Pello Mari Otaño Barriola

1857-1910

Joxin Azkue Gabilondo

Hernandorena Kultur Elkarte

Pello Mari Otaño Barriola Zizurkilgo Errekalde baserrian jaio zen 1857an. Hiltzeko arriskuan nonbait, medikuak bataiatu zuen. Bertso tradizio handiko familia zuen Pello Marik: izen bereko aitona (*Errekalde Zaharra* deitua), Juan Pedro aita... Baita Xenpelar, Pello Errota eta Txirritarekin aritu eta bertsolari ere ziren Joxe Bernardo osaba eta haren alaba Plazida...

Pello Mariren olerkigintza ulertzeko, ordea, haren bigarren abizenari erreparatu behar dugu: Barriola. Aitaren aldetik bertsolartzaren sena jaso bazuen, ama Barriolaren aldetik garai hartan ohiko ez zen goi mailako kultura eta pentsamolde liberala bereganatu zituen.

Errekalden guztiak kabitzen ez eta, familiak baserria utzi eta Zizurkildik eta Adunatik zetozen bideak elkartzen ziren gunean eraikitako Karidadeko Bentan jarri ziren bizitzen. Aita hargina zenez, Donostiako zabalakundeak lan ugari eskaini zion. Hara joan behar izan zuen familiaren zati batek, aita tartean. Ama, aldiz, Karidadeko Bentan geratu zen.

Pello Mari 18 urtera heldu zenean Bigarren Karlistaldia unerik beroenean zegoen eta gerrara joan behar izateko arrisku bizian zen. Ziur aski, gerrari ihes egin nahiak eramanean Ameriketara: mendiak pasatu eta mugaz beste aldeko porturen batean ontziratu beharko zuen.

Ameriketarako lehen (1875-1879) eta bigarren (188?-1890) bidaiak

1875. urtean joan zen Pello Mari estreinako Ameriketara. Bizimodua ateratzeko denetik egin omen zuen: Panpetan itxiturak jarri, labekari, liburu kontuetan aritu zen, ferratzaile, poeta... Artzain aritu zela ere badakigu, berak aitorturik. Gerra amaituta, badakigu 1879an etxean zela berriro.

Euskal Herrian atarramentu onik ez eta laster bigarrenez abiatu zen Otaño Ameriketarako, Pasaiatik irtenda oraingoan. Baina 1890. urtean berriz, Euskal Herrira itzultzeko erabakia hartu zuen.

Donostian

Aitarekin Amaran jarri zen bizitzen. Orduan ezagutu zuen Maria Magdalena Alberdi Deskarga, Malen, ondoren emazte izango zuena. Baina Pello Marik ez zuen bertsozik izan harentzat, ez ezkongaietan, ez ezkondu ondoren ere. Amerikatik itzuli eta urtebetera, 1891n ezkondu ziren Pello



Mari eta Malen. Bikoteak hiru seme izan zituen Donostian: Bernardo (1892), Migel (1894) eta Josetxo (1896). Pello Mariren ogibideari dagokionez, urte haietan dendari, eskribau eta enplegatu gisa lan egin zuela badakigu. Baita tabernari ere.

Ameriketara hirugarren eta azken bidaia (1898-1910)

Pello Marik emaztea eta hiru semeak hartu eta hirugarren aldiz itsasoaren bestaldera joatea erabaki zuen. Otaño hemen atxikitzeko asmoz, harentzat lanpostu bat sortzeko proposamen bat ere izan zen: Diputazioarentzat bertso eta abesti herrikioen letrak bildu, sailkatu eta argitaratzea. Baina diputatu karlistek ezin zuten bultzatu, Otaño liberala baitzen, eta diputatu liberalentzat poeta desordenatu hutsa zen.

Ameriketara abiatzeko bezperan Donostiako Orfeoia joan zen Pello Mari, Malen eta hiru semeak zeuden etxera saio hunkigarri bat eskaintzera. Biharamunean egundoko jendetza bildu zen Pasaiara, Otaño handiari agur esatera. Beste zenbait bertsolarierekin batera, han zen Joxe Manuel Lujanbio Txirrita ere. *Ez nua borondatez, beharrak narama* zioen Otaño.

Otaño-Alberdi sendia Panpetako Pehua-jó herrira joan zen. Han hiru alaba izan zituzten Pello Mari eta Malenek: Teresa (1899), Juanita (1903) eta Malentxo (1907).

Argentinako lehen euskara irakaslea izan zen Otaño. Euskara irakasteko berak asmatutako sistema zuen, J. Azkue eta J. Arrastoak Mar del Platan aurkitutakoa eta Otaño berak *Cátedra del Bascuence* izena eman ziona: eskuz idatzitako oharra, aditzak, esaldiak...

Pello Marik, asmaren eraginez-edo, arazo handiak izaten zituen beti kanturako. Eztarriz ere ez omen zen batere jantzia, horregatik deitzen zioten *Kattarro*. Gaur

egungo mikro eta bozgorailurik gabe, oztopo handia zen hori bat-baterako dohain apartak zituen bertsolariarentzat. Baina eztarri txar hari zor diogu, hain segur, hainbeste bertso sorta eder eta oparo idatzi izana, asko bertso-paperetan argitaratu zirenak gero.

Familiak Hernandorena Kultur Elkartearen esku utzi zituen eta gaur Koldo Mitxelena liburutegian jasota dauden eskuizpribuen artean bada garrantzi handiko bat: *El Libro Atado* deitzen ziona Otaño berak. Han jaso zituen bertso sorta gehienak. Pello Marik berak bertan adierazi zuenez, *Ikusirikan ugaritutuzen/dijoazkidala lanak, eta aztutzen dirala noizbait/izkribatzen ez diranak, liburu ontan jarri nai ditut/gogoratzen zaizkidanak, gaur edo bihar nere semeak/ikasi ditzaten danak*.

Urte hauek zinez emankorrak izan ziren Pello Mariren bertsozintzan. 1900. urterako plazaratuak zituen *Lagundurikan danoi, Zazpiak bat eta Amerikako Panpetan* bertso sailak. *Mutil koskor bat, Txepetxa* bertso sorta, *Artzai mutila* operaren letra, *Alkar* liburua...

Asmak arazo handiak eragiten zizkion Otañori. Rosarion hil zen 1910ean, 53 urte zituela, *a consecuencia de síncope cardíaco*, heriotza agiriak jaso zuenez. Hasieran bertako hilerrian geratu zen, baina familia La Platara bildu zen eta hango horma-hobi batean aurkitu zituen Hernandorena Kultur Elkarteak Pello Mari eta Malenen hezurak.

Otaño handiaren heriotzak sekulako zirrara eragin zuen, bai Argentinako euskaldunen artean eta baita Euskal Herrian ere. Egunkari eta aldizkariak asko idatzi zuten zizurkildarrari buruz, etengabeak izan ziren haren ohorez idatzirik bertso eta artikulak. Txirritak ere bertsoen bitartez adierazi zuen bere nahigabea.

Pello Mariren iritzi politikoak

Otañoen bilakaera politikoa begien bistakoa da. Etxean liberalen iturritik edan ondoren, errepublikazale eta foruzale agertu zen gero, eta azken urteetan mezu erabat abertzaleak zabaldu zituen, hitzaldi nahiz bertsoen bidez. Azken urteetan ez zuen gehiago Pedro Mari izena erabili. Pello Mari sinatu zuen handik aurrera, aitona Pello Mari etxeokontzat. Sabino Arana Goiriaren aipamenak behin baino gehiagotan egin zituen, eta argi dago haren ideiak erabat bere egin zituela. Euskal Herriaren batasunaz idatzi zuen, mugaren bi aldeetako euskaldunetz, bitan banatzen gaituen Bidasoa ibaiatz, euskararen makurrez: *Zazpi ahizparen gai dan oihala/ebakirikan erditik, alde batera hiru soineko, utzirikan lau bestetik, /goraiziekien bereizi arren/bakoitza bere aldetik, /ezagutzen da jantzi dirala/zazpiak oihal batetik*.

Nabarmenak dira Pello Marik sortu zituen azken bertsoak, bera zendu ondoren argitaratu zirenak, Argentinaren Independentziaren 100. urteurrenari eskaini zizkionak. Horrela amaitzen ziren: *Denok maitaro agurtzen degun/maiatzeko eguzkiyak (Argentinak alegia)/aska ditzala euskal lurra ta/katibu dauden guztiyak*.

Otañoen garrantzia bertsolaritzan

Bertsolaritzaren historia luzean, sortzaile bikainenetako bat izan da zizurkildarra, eta aparteko lekua merezi du. Pello Esna-lentzat bertsolaritzaren historiako sei bertsolari nagusienetako bat genuke Otaño, zalantzarik gabe. Besteak Xenpelar, Txirrita, Uztapide, Basarri eta Amuriza. Juan Mari Lekuonak dio: *Gerra-aurrean eta gerraostean, bertsozaleek buruz ikasten dute Otaño, eta erreferentzia klasikotzat hartzen. Eta, nabarmenago dena, Basarrik eta Uztapidek eredutzat hartzen dute Otaño, jantzia delako, ugaria, euskara garbikoa, arrazoizkoa, errespetuzkoa, garaiko eskakizunei egokituagoa. Geroztik, Amuritzatorri arte, beharbada gehienik eragin duen maisua izan da Otaño bertsolaritzan*.

GEHIAGO JAKITEKO

- *Pedro Mari Otaño eta bere inguru* – I eta II. Antonio Zavala.
- *Otañoen arnasa*. Hernandorena Kultur Elkarte.
- *Bidegileak*: Pedro Mari Otaño Barriola. Xabier Euzkitze.

Zer esan hura entzun

GELEN ARTEKO MAILA
Pello Errota 5 (Asteasu)
Doinua: Eguzkiak urtzen du goian

1.
Gure eskolan irakasleek
hitz egiten dute altu
ta bosgarren mailak baditu
horren berri hiru datu
inglesekoa nahiko jatorra
ez dauka hainbat pekatu
musikakoak orde ezin
du gehio desafinatu
hitz egiten du zortzi metrora
balitu hamalau katu
baina gu ere ez ginen jaio
umil, isil eta santu
mikrorik gabe bolumen latza
degu urteetan hartu
eta azkenik gure tutorek
txistuak maiz jotzen ditu.
2.
Etxeko lanak dira guretzat
noski zigor haundiena
su botatzeko gogo dugu
gela osoan barrena
gaizki esertzen baldin bagera
beste bronka bat hurrena
ta komunera joateko ere
eskatu behar baimena
eskua altxa edo bestela
tutorearen ordena
botilak beti mahaitik kanpo
bestela a ze problema
“txatxara” tope egiten dugu
hautsiaz mila eskema
baina builak ez gaitu beldurtzen
eta hori da onena.

3.
Jolas garaia da oso motza
hor ez da sortzen liskarrik
gero klasean ia bost ordu
eta erdiak alperrik
zaila da ulertzen nola urratzen
dituzten hauek ezta
ta ez dituzten sekula zaintzen
ikaslearen belarrik
esaten dute ez daukatela
sekula gure beharrik
ta guri esker kobratzen dute
ez dago esan beharrik
buila_egiteak nahiz ta ez duen
mundu hontan ezer txarrik
builarik egin nahi ez badute
utz gaitzatela bakarrik.

Txorien kantuak lasaitzen nau

GELEN ARTEKO MAILA
Fleming 5B (Amasa-Villabona)
Doinua: Haiziak bidali du

1.
Goizean esnatzen naiz
entzuten kukua
oraingo garaietan
pozten dit barrua
hotz-hotza ta tristea
da gure negua
udaberrian dator
txorien kantua.
2.
Txorien kantua da
benetan polita
basora joaten naiz
ta egin bisita
lasaigarria baita
txorien musika
basoan egoten naiz
begiak itxita.

3.
Txorien kantuekin
bete zait bihotza
belarriak goxatu
eta bizipoza
zuhaitzetatik dator
hegaztien hotsa
maite ditut txoriak
ta haien ahotsa.



Jaitz bertsoak

GAZTEEN MAILA-LEHEN SARIA
Beñat Zeberio Mateos (Asteasu, 2005)
Doinua: Bakardadeak (Jon Martin)



1.
Nahiz agian zuk ez uste,
pertsone batzuen grinek
diotezen hitz arinek
gehiago pisatzen dute.
Nahiz haiek sakatu mute,
egingo diete, klaro,
haiei jaramon gehiago.
Zergatik entzuten bide
dira_haien xuxurlak nire
oihuak baino_ozenago?

2.
Nahiz katez lotua libre
den nire_ahots oparoa,
hitzero estutzen doa
ta oiuhu guztiak nire
ahots korden amilbide,
eztarriaren kaltea;
ezin askatu katea.
Dena handia den mundu
honetan hain zaila dugu
infrasoinu izatea.

3.
Nire_ahotsaren joera
ezin da erraz aldatu:
belarri batetik sartu
eta bestetik atera.
Ta deus hobetze aldera
in ezin dezakedala,
umeldu zait betazala.
Gor mundu batean legez,
oihukatu dut "mesedez,
norbaitek entzun nazala!"

4.
Begiratzuz albotara,
nabaritu ditut di-da
bi begi niri begira
ta, magnetismoa traba,
ezin nire begirada
bi begi haietatik ken.
Begi haiek bazekiten
ni nola_utzi hitzik gabe,
ixiltasunaren jabe,
hitzik gabe hitz egiten.

5.
Eta inpaktu zuzenez
zidan azala zulatu
eta bihotzean sartu.
Bere begiratu emez
aski jarraitzen zuenez
nire bihotza betetzen,
jarraitu zuen gailentzen
bion hitz egin ezinak,
sentimendu_haren uhinak
deuseztatu ez zitezten.

6.
Ahoan ze paralisi!
Lehenengo momentutik
argi utzi dit zergatik,
behintzat hala dut iritzi,
ez nintzen inoiz iritsi
inorekin oraindano
hitzak erabiltzeraino:
begiradaz argiago
transmititzea baitago
hitzak erabiliz baino.

7.
Irribarre bat pausatu
zitzagun ezpain ertzetan,
uzkurdurak masailetan
hala baitzuen kausatu.
Indarren batek bultzatu
ninduen aurrea_hartzera.
Zaila da azaltzen, zera,
ni zerk bultzatu ninduen
biok babesten gintuen
isiltasuna haustera.

8.
Eta "gustatzen zatzaizkit"
esan nion maiteminez,
malkoak eutsi ezinez,
baiezkoaren aurretik.
Bolumen kontuengatik
ez gara ibiltzen larri,
antzina_egin gisa sarri;
bi infrasoinuren talka,
belarrira xuxurlaka
mintzatzen gara elkarri.

Bi hitz

GAZTEEN MAILA-BIGARREN SARIA
Amets Aizpurua Manzisidor (Getaria, 2005)
Doinua: Agur sagar beltzeran



1.
Ahotik pasa ohi da
hitzen banketea:
gure barne ahotsen
eskaparatea.
Batzutan onurako,
bestetan kaltea,
baina gaur trabatu zait
silaben katea.
Zergatik zait hain zaila
bi hitz esatea?

2.
Errekamaran daude
jasota bi bala,
enbor beretik jαιο
diren bi ezpala...
Metafora andana
sor daitezke hala,
baina ezin ezkuta
arrazoi makala:
motz geratu zaidala
hiztegi zabala.

3.
Ta zenbat irtenbide
ditudan aukeran.
Hitzek hor dihardute
zentzu gabe hegan.
Baina balantzan jarri
ohiturazko eran
ea zer irteten den
honako galderan:
zenbat esan nahi dudan
ta zenbat diodan.

4.
Ez dakit zein den hitzen
ebanjelioa,
zein den apreziatu,
zein den helioa...
Galderaz bete nahiko
nuke folioa.
Aztertuz gero hitzen
monopolioa
hitzek zenbateraino
dute balioa.

5.
Nahiz esaldia hasi
emeki-emeki
bi hitz hauen aurrean
trabatzen naiz beti.
Ezin adierazi
nahi bezain libreki,
baina egia esan
nahi badut nobleki,
errazago zatekeen
zer esan baneki.

6.
Enborra moztu nahi ta
nork moztu du huntza?
Noiz da askatasuna?
Noiz da zapalkuntza?
Babeleko dorrean
non da berrikuntza?
Non da hitzen artean
behar zukeen zuntza?
Zergatik da hain zaila
zalantzen hizkuntza?

7.
Demagun lokarria
solte dela, bada,
topatuko ditugu
beste hainbat traba.
Aske senti naiteke,
ausart, beharbada,
baina azken finean
nora heltzen gara?
Hitzak alferrik dira
nork entzun ez bada.

8.
Nire buru barneko
hamaika fabula
dira hau askatzeko
daukadan formula.
Nahiz ta nere ahotik
ez entzun sekula
hau irakurriz gero
jakin dezazula
nire bihotz txikian
etxe bat duzula.

Ahotsaren historia

HELDUEN MAILA- LEHEN SARIA
Haritz Mujika Lasa (Asteasu, 1995)
Doinua: Trumoia ortzi beltzean hoska



1.
 Ahots-lasterra da euforia,
 mutua, berriz, glotofobia.
 Korda laburrak doinu fina du
 eta luzeak lodia. (Bis)
 Korapiloak sumatzeko gai
 ote da fonologia?
 Erritmoa, melodia...
 Bertsoz kontatu nahi nuke nire
 ahotsaren istoria. (Bis)

2.
 Amaren ahots zein sabel barren
 entzungo omen nituen aurren.
 Bera nirea antzematean
 ipiniko zen pozarren. (Bis)
 Negar artean iritsi nintzen,
 bilakatuaz elkarren.
 Eta hitz egin ez arren,
 bizirauteko beharko nuen
 ahots fin-fina nekarren. (Bis)

3.
 Urte ta erdi bete berritzat
 zeukan garaian nire bizitzak
 aita ta amari entzungo nien
 "Hitzok errepika hitzak!". (Bis)
 Hala ahoak fonema haiek
 ustean egingarritzat;
 putz egin zuen glotisak,
 ahots fin haren gainean jarritz
 lehendabiziko hitzak. (Bis)

4.
 Behin kunpliturik, seiak, zazpiak...
 Jakintzaz bete ahala saskiak,
 fonemen kantu plazerezkoan
 agertu ahala hizkiak. (Bis)
 Jabetu nintzen bazirela han
 zuzenketak, idazkiak...
 "Altxa eskua!"k, "Gaizki!"ak...
 Ta ez zituela ahots tinbreak
 zabaltzen ate guztiak. (Bis)

5.
 Hamar hamaika urteren kosken
 bueltan, urdintzen eta arosten
 hasitakoan, lagunak ziren
 arrakastaren lau bosten. (Bis)
 Nik ez nekien hitzak joan ahala
 enahaitzen eta josten
 eta ahotsa ahosten,
 komeni zela hastea esan
 beharrekoa adosten. (Bis)

6.
 Hamalaukin buru askea
 izatea da buruhaustea
 -ni nintzen ahots korda lodiko
 liderraren kontrastea-. (Bis)
 Gauza bera zen ni mintzatu ta
 ezbai sutsu bat hastea,
 lortu arte ikastea:
 zenbait a(r)hotan sortzen duela
 dardara batek bestea. (Bis)

7.
 Hamaseirekin libertatea
 da institutuak duen atea;
 "Zein ederra den", "Gustuko ote nau?",
 "Ez dut nahi antzematea"... (Bis)
 Bi oinek dar-dar, mingainak dar-dar,
 izerdiz blai besapea;
 lehortzeraino trakea.
 Posible al da hitzak kontrako
 eztarritik joatea? (Bis)

8.
 Hogei urtetik, -lau ta -bostera,
 bai testua ta bai ahoskera
 leundu eta komunikatzen
 ikasi nuen, ostera. (Bis)
 Ez lehengo tonu erasotzaile,
 ez indar ta ez joskera.
 Diskurtsoak ahotz behera.
 Hainbeste aldatu den hori izan
 al daiteke ahots bera? (Bis)

9.
 Bizigarri da ahozko prosa
 ta bizibide haren drindotsa.
 Hura entzutean gertatzen dena
 da ordea, paradoxa; (Bis)
 ondokoenak eragiten du
 hunkidura eta poza
 baina norberek lotsa...
 Lasaigarri zait zuk ez duzula
 entzungo nire ahotsa. (Bis)

Ahotsak egiten gaitu nor

1.

Ahots baten garrantzia
nola eduki ahantzia
hitza hitzari erantsia
ta esanahiez jantzia
lagun artean nahiz jendaurrean
badu bere esentzia
baina ahotsak balu entzugai
diren hotsen ausentzia
hor eteten da komunikatze
saiakeren ponentzia
entzun ezina bada eztarri
lokailuen frekuentzia...
Izan dezagun norberak duen
ahotsaren kontzientzia.

2.

Agintea, boterea
erlijioa, fedea
iturburua, xedea
zuk zurea, nik nerea.
Aginteak du beti ahotsa
hori da bizilegea
herria mutu eta hitzaren
jabe beti erregea
ahots ta hitzak bereizten ditu
gizaki ta aberea
eman ahotsa bereizi gabe
gizona ta anderea
ausart, lotsati, indartsu, ahul...
Baina bakoitzak berea.

3.

Bi begien begirada
lau besoen besarkada
lagunmin baten eupada
bi siamesen taupada
dena ez da hitz bidezko lorpen
edo ahotsen islada
ahotsak nahiz ta eman garena
erakusteko parada
edo sentitzen duguna zer den
adierazteko patxada
ahotsa ez da beti ahozko
ta hau da gai, beharbada
zeinu bat edo keinu bat ere
komunikazioa da.

4.

Testu eta argudio
eleberri bat medio
istripu nahiz suizidio
drama edo amodio
orri zuriak tintaz belztea
obra baten preludea
idazlearen lan bakartian
aholku ta gomendio
hitza hitzari errenditzea
du bere erremedio
lekua nori eta noiz eman
nahiz ta hautatu propio
protagonista bakoitzak bere
ahotsa eskatzen dio.

HELDUEN MAILA-BIGARREN SARIA
Amaia Agirre Arrastoa (Asteasu, 1977)
Doinua: Munduko ilunabarra



5.

Nola borobildu ertzak?
Nola gauzatu ametsak?
Nola gainditu ezetzak
entzun ezean baietzak?
Baldin entzumen kanal bakoitza
estaltzen badu lupetzak
bizitzan iskin eta entzungor
jokatzen badu_hezkidetzak
mihia antzu ta belarriak
galdurik dohai jabetzak
alferrik dira hitzunen ahots
ta hitz bidezko defentsak
ahotsa ezpain mugimendu soil
baita gor-mutu batentzat.

6.

Ziega estu ta barrote
zaintzaile lau gizonkote
euren porra ta bigote
eta preso a arlote
ahotsa jaso ezker bizkar
hezurrean zenbat kolpe
"esaten duzun guztia aurka
jarriko zaizu" diote
beldurrak mutu uzten zaitu ta
odol beroa gero ke
erotzeraino haize errota
aurrean nola Kixote...
Lau hormek soilik entzuten duten
ahotsa ahotsa ote?

7.

Mendez mende, aroz aro
emakumearen aho
asko zigortuta dago
nahi ta ezinen arrago
ta mututzer a kondenuatu nor
gizonago, nor arrago
ahotsa bera boterea da
hitza hartzeaz harago
berdintasunik ez da, ez bada
feminismotik igaro
sukaldean nahiz plazan aldarri
egiteko gertu nago
ito ez dadin emakumeen
beste ahots bat gehiago.

8.

Hitzak mihia du magala
eztarri kordak uhala
ta ahotsa (dakidala)
kanporatze naturala
da, baina jai berri batentzat
ez da hain gauza hutsala
adierazpide bakarra baitu
behar izanen itzala
hitzik gabeko soinu bakar du
eskaera ofiziala
ohar gaitzen zenbat den handi
negarrak duen ahala
hitzen premirik ez duen lehen
hizkuntza unibertsala.

9.

Gertakari baten printza
kontatzearen ekintza
objektibo ta anitza
izatearen baldintza
baldin bada guk gizarteratu
nahi dugun kazetaritza
ikuspegi ta arrazoibidez
sarri eskumotz gabiltza
ideologia oro ezin da
luma bakarrez zerbitza
zentsurak bere boterea ta
aginteak bere ditza
ahotsa nori ematen zaion
hark baitauka azken hitza.

10.

Libratzen ez den ahotsa
fonetikaz aho hotza
da, eta soinu motza
bada, hitza maiz arrotza
gertatzen zaio, ta sentitzen du
ezintasunen morrontza
jende aurreko jarduna ezin
bururatzearen lotsa
eta entzule artean noiznahi
marmarra ta harrabotsa
bertsolaria saien jaki da
nola eri den bildotsa
mihia mutu ta garraizika
ari baitzaio bihotza.

11.

Abeslari baten sena
txikitatik dakarrena
ahots baxu nahiz ozena
tonu ahul nahiz gizona
operan tinbre galduak dakar
armoniaren etena
bakarlariak afonia du
bidelagun eskasena
panderojole batek amets du
irrintzirik luzeena
historiara igaro arren
ospea eta izena
ahotsa dugu oroimenean
betiko geratzen dena.

12.

Eztarrian bi xomorro
ahots ozen bat moztorra
azken puntuz karramarro
neurri luzez olagarro
oholtza gain edo oholtza azpian
sentitu gaitzen harro
berdin du izan ezta gozo,
zozo edo birigarro
isiltzen edo goratzen diren
ahots denen zirriborro
izan nahi zuen aldarrikapen
xume honek lerroz lerro
historiara pasa daitezen
beste hainbeste KATTARRO.

10 URTEZ HAMAIKA BERTSO



10 urtez hamaika bertso kantatu, entzun, kantarazi, grabatu, dokumentatu, irakatsi, ikasi eta sortu ditugu, eta hamargarren urte hau ez da ezberdina izango. Irailetik aurrera ere bertsoaren transmisioan jarraituko dugu bertso-eskolen bidez; bertso-saioak ere antolatuko eta sustatuko ditugu, hala nola, Pello Errota bertso-sariketa antolatuko dugu iraila eta urri bitartean, (H)aritz bertso-jaialdia izango da azaroan, eta Gure Bertso Zirkua abenduan; bertso-saioak grabatzen eta dokumentatzen jarraitzen dugu, eta emititzen, azaroan 300 programa beteko baititu (H)ari Naizela irratsaioak; eta Tolosaldeko bertsolarien ikerketa lerroa ere martxan jarri dugu, lehengoen berri izan dezagun oraingook eta gerokoek ere.

10 urtez hamaika ilusio sortarazi ditugu, eta sortzen jarraitu nahi dugu. Hitzaren harian aritzen jarraituz; hitzekin, hotsekin, erritmoarekin eta esanahiekin jolastuz; bertan eta bertatik eraginez; lehengoengandik jasotakoa ondorengoei eskainiz.

Jo ezazue txalo, bota puntua, jarri iezaguzue gaia, jarraitu bertsoa, ez isildu eta hartu parte. Animatu eta gerturatu zaitezte, bertsozaleok ematen diozue-eta honi guztiari zentzua; izan aulkian eserita, izan antolakuntzan. Ateak eta mikrofonoa zabalik.

10 urtez hamaika bertso, eta etorriko direnak!



ASTEAZKENA, 2023KO UZTAILAK 19

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea:

Rebeka Calvo Gonzalez.

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete.

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661 678 818, publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetalea: 687 410 022.

anoetaldea@ataria.eus

Ibarraldea: 687 410 118.

ibarraldea@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:

